



Facebook-eko

argitalpenen


neurri egokiak

Fan Page-eko irudietarako neurriak

Profil-irudia:

Ordenagailu gehienetan 170x170 px-etako bereizmenean erakusten da. Gomendagarria da gutxienez 180x180 px-etako bereizmena izatea, gero Facebook-ek birdimentsionatuko du eta.

Smartphone-etan 128x128 px moduan agertuko dira, eta bestelako telefonoetan 36x36 px-etan.




Portada:

820x312 px dimentsioetan azalduko da. 851x315 px-etan igotzen bada, JPG formatuan bada eta 100 Kb baino gutxiago pisatzen badu, irudia azkarrago kargatuko da. Hala ere, irudiak logoak edo testua badauzka, gomendagarria da PNG formatuan igotzea, kalitate hobea izan dezan. Mugikorretan 640x360 px-etan bistaratuko dira.

► Facebook-eko portadako bideoak:

Zure bideoak 1250x312 px izan behar ditu gutxienez, eta 20 eta 90 segundo bitarteko iraupena izan beharko du. Hala ere, Facebook-ek 1250x463 px-etako dimentsioak izatea gomendatzen du.



Irudi karratuak argitalpenetan:

1200x1200 px-etakoa izatea gomendatzen da. Baina 1080x1080 px-etatik ezin izango dugu jaitsi.

Facebook-eko dendetarako irudiak:

Gutxienez, 1024x1024 px-etako bereizmena duten produktu-irudiak igotzea gomendatzen da.



Irudi horizontalak argitalpenetan:
1200 x 630px

Irudi horizontalak argitalpenetan:
1200x630 px.


Esteka partekatua irudiak:
1200x630 px.



Facebook Stories-erako:
1080x1920 px

Facebook-en iragarkiak egitean, honako neurri hauek kontuan hartu beharko dituzu:

Facebook-eko iragarkietarako neurriak




Iragarki estandarrak:

'Albisteak' atalean bistaratzeko direnak dira. Irudi horizontalerako, neurriak 1200x628 px-etakoak izan behar dira. 1:1-eko itxura-erlazioarako irudietarako, 1080x1080 px izatea gomendatzen da.

Bilduma moduko iragarkiak:

1200x628 px. Facebook-ek 1:1-eko itxura-erlazioa doitu ditzakeela kontuan izan beharko duzu.




Facebook Marketplace:

ez dago gehieneko bereizmenik. Irudiek gutxienez 1200x1200 px-etakoa izatea gomendatzen da.

Alboko zutabeko iragarkiak:

Facebook-ek 1200x1200 px-etako gutxienerako bereizmena gomendatzen du.



Karrusel iragarkiak:

Gutxienez, 1080x1080 px.




Facebook Stories-eko iragarkiak:

1080x1920 px. Irudiaren goialdean eta behealdean segurtasun-espazio bat utzi ezazu, elementu guztiak ondo bistaratu daitezzen. Iragarkiaren osagai guztiak 1080x1420 px-etako segurtasun-eremu baten barruan agertu beharko lirateke.

Facebook-en iragarkiak egitean, honako neurri hauek kontuan hartu beharko dituzu:

Sustatutako argitalpenetarako neurriak



Sustatutako argitalpena:

Igo zenuen argitalpena 1200×1200 px-etakoa bada, sustatzerako orduan, 470x470 px-etan bistaratuko da ordenagailuetan, eta 626x840 px-etan mugikorretan. Alboko zutabea: 254x133 px.

Hauek dira gomendatzen diren gutxieneko neurriak. Kontuan izan Facebook-ek irudiak birdimentsionatuko dituela, bistaratzen diren gailuetara egokituz.

Sare sozial honetako iragarkiei buruz sakonago jakin nahi baduzu, Facebook-eko iragarki-gida osora begiratu bat egin diezaiokezu.